

# Kostu egitura

Gure enpresa aurrera eramateko kostu batzuk izango ditugu. Bai kostu finkoak, bai kostu aldakorak.

Oinarrizko kostu batzuk edukiko ditugu, gure enpresaren montajea kostu finkoak izango dira, hau da, behin betiko baliabideak. Gure enpresak denboraldikoa izango denez, montajerako errekurtso nagusia alokatuko dugu; hala nola, eremua eta autoak.

Hau dela eta, eremua esate baterako, udaletxeari alokatuko diogu baina hau posible ez izanez gero, baserritar bati eskatzen saiatuko gara. Aurreikusten dugu zelaiaren alokairua 240€/hilekoa (20€/ egun; astean 3 egun, 12 egun hilabetero) izango dela. Bestalde, komunak behar izango ditugunez, udaletxeari komuna portatilak eskatu ditugu eta 30€/hilean ordaindu behar izango ditugula esan digute.

Autoeei dagokionez, aipatu dugun bezala, 10 kotxe egokituko ditugu autozine bertan, kotxea ez duten gazteentzat. Honetarako, Zumarragan dagoen desegite batera joan gara eta 10 kotxe salduko digute, 40€-tan bakoitzak. Hauek autozinerako gaizki egongo direnez, gure eskolako lan-heziketa ikasleekin hitz egin dugu eta esan digute gure 10 kotxeak konponduko dituztela. Beraz beraiei, 50€ kotxeko emango dizkiegu.

Bestalde, pantalla eta honen barneko beharrak (entzungailuak, proiektorea,...), guk ditugunekin moldatuko gara. Hala ere, adostu dugu gure pantalla prezio batean salduko dugula eta horrekin lortutako diruarekin beste hobeia erosi.

Halaber, karabana erosiko dugu 6600€-tan. Honekin lotuta, pentsatu dugu zerbait gure kostuak errazteko. Hau da, karabana bakarrik asteburuetan erabiliko dugunez, astean zehar alokairuan jarriko dugu eta

honekin

zerbait

irabaziko

dugu.

The screenshot shows a Milanuncios advertisement for a 'Lacomma - Crystal' food truck. The main image shows a white food truck on a trailer with a glass service window. The price is listed as 6.600 €. The ad includes statistics: 69826 views listed, 1 contact, 14 shared, 24 favorite, and 0 renewals. It also features a 'Milanuncios Express' logo and a search bar at the top.

Gainerako kostu finko gehiago izango ditugu; WI-FI (32€/hilean) eta sordatak (600€/ hil). Hauek enpresa guztietan bezala, hilabetero ordaindu behar izango ditugu. WI-FI-ari dagokionez, aparatu mugikorra lortuko dugu, bezeroen beharren arabera egokitzeko eta hau 100€-ko kostua suposatuko du. Bestalde, soldatei dagokionez, hasieran baxuak izango dira, mozkinan handitzen joaten diren heinean, soldatak handitzen joango gara.

Orain kostu aldakorrei buruz hitz egingo dugu. Hornitzaileei eskaria izango da nagusia. Hau da, bezero kopuruen arabera aldatzen joango da. Hasieran, 850€/ astean gastatuko dugu janaria eta edariak erosten. Gainera, elektrizitatea beste kostu aldakorra izango da zeren hau ere bezero kopuruen arabera aldatuko da. Zenbat janaria sukaldatzen dugun arabera kostu handiagoa edo txikiagoa izango da. Bi hauek zuzenki proportzionalak izango dira. Noski, elektrizitatea ez dugu sukaldatzeko bakarrik erabiliko, filmak ikusteko eta eremuari argi emateko ere behar dugu baino hau ez du asko aldatuko hilabete batetik bestera.

Bukatzeko, beste kostu gehigarri batzuk izango ditugu; hala nola, bulegoa eta jantziak. Bulegoa alokatuko dugu eta UGGASA agentziak laguntza bat bermatuko digu. Beraiekin hitz egin dugu eta 40€/ hilean ordaindu behar ditugula esan digute. Aitzitik, gure lankideentzato jantziak daude. Honen inguruan bilara bat eduki dugu enpresaren partaide guztiak eta adostu dugu bakoitzak bere etxean saiatuko dela zerbaitekin moldatzen. Hala ere, "plan B" bezala adostu dugu "bote" moduko bat

jartzea egunero lortzen dugun propinekin, eta bertako dirua jantzi edo apaingarri batzuk erostea eta karabanan gorde denon eskuetara egoteko.